

**BURLATAKO UDALEKO KULTUR ANIZTASUN
ETA MIGRAZIOEN PROGRAMA
PROGRAMA DE DIVERSIDAD CULTURAL
DEL AYUNTAMIENTO DE BURLADA**

Burlatan jatorri eta kultura ezberdineko jendea bizi gara, eta hori, gure iritziz, ondare garrantzitsua da gure herriarentzat, bai eta areagotu beharko genukeen aberastasuna ere. 60ko hamarkadan Nafarroa industrializatzen hasi zenean, gure herriaren garapen urbanoa hasi zen, eta hasieratik beretik, Nafarroako landa eremuetako jendea iritsi zen hona, bai eta Espainiar Estatuko hainbat herritako jendea ere, hala nola Andaluzia, Gaztela, Extremadura, Galizia eta beste alde batzuetakoak, eta hemen jada finkatuak zeuden euskal-nafar jatorriko gizon-emakumeekin bizi izan ziren, eta Nafarroako nekazaritza-eremuetatik zetozenekin ere bai. Berrikiago, migrazio-aldi globalizatuek eraginda, munduko leku aunitzetako jendea iritsi da hona: Ekuador, Peru, Kolonbia, Maroko, Senegal, Errumania, Bulgaria, Txina, Pakistan, etab. Baina bi migrazio-prozesuetan, bizi-baldintza hobeen bila finkatu gara denok Burlatan. Izan ere, migrazioak hainbat arrazoik eraginda gertatzen badira ere (arrazoi kulturalak, sozialak, politikoak, humanitarioak...), jende gehiena arrazoi ekonomikoek bultzaturik migratzen du. Azkenik, gure herriari darion kultur aniztasunaren osagarri, Ijito Herria ere hartu behar dugu kontuan, Burlatan ere bizi baita, eta mendeak dira Nafarroako parte direnetik.

Beraz, aniztasuna oinarri, eta Burlata denon artean eraikitzeko asmoz, gure jatorria edo sorlekua zein den alde batera utzita, **Burlatako Udaleko Kultur Aniztasun eta Migraziorako Zinegotzigoa** sortu zen. Zinegotzigoak ikuspegi eta bultzada berria eman nahi die kultur eta jatorri aniztasunaren inguruko politikari, gure egoera anitzari nahiz askotarikoari erantzuteko, gure herrian elkarbizitza egokia sustatzea helburu, hemengo auzokide guztiak Burlatako parte senti daitezzen, haien jatorria edo sorlekua alde batera utzita, eta denak ere eskubide, betebeharrak eta aukera berdinekin. Azken buruan, **aniztasunaren kudeaketa demokratikorako eredu berria** jarri nahi dugu abian.

Jakin badakigu asko direla aintzat har daitezkeen aniztasun moldeak, baina programa honetan jatorri, kultura, hizkuntza nahiz erlijio aniztasunaz ari gara, eta oro har, identitate aniztasunaz. Horrenbestez, lanean ari gara, kultura eta identitate ezberdineko jendearen arteko elkarbizitza modu onuragarrian kudeatzeko. Kudeaketaren gakoetako bat kohesioa eragingo duten osagaiak bilatzea da, guztion elkarbizitza testuinguru anitzean bermatze

aldera. Horretarako, nahitaezkoa da aniztasunaren onurak nabarmentzea, denon artean aniztasunaren inguruko kultura berri bat bultzatzea, elkarrekiko aitortzan eta errespetuan oinarriturikoa.

HELBURUAK

- Burlatako kultur jatorri guztien arteko elkarbizitza sustatu eta hobetzea, elkar ezagutzaren eta aitortzaren bidez.
- Burlatan bizi diren pertsona guztiak gure herrian partaide senti daitezela lortzea, nongoak diren edo nondik datozen alde batera utzita.
- Eskubide nahiz betebeharrak guztiak eta aukera-berdintasuna bermatzea Burlatan bizi den jende guztiarentzat.
- Kultur aniztasuna aberastasuna dela ulertzea, Burlatako herritarrentzat aukerak eragiten dituenak.
- Kultur aniztasunaren kudeaketa demokratikoaren alde lan egitea, herritar guztiak ardatz hartuta.
- Burlatan dauden kultur jatorri guztien arteko topalekuak sortzea, kulturen arteko jarduketak bultzatuz.
- Bazterkeria, arrazakeria eta jarrera xenofobo mota orori aurre hartzea.

PROGRAMAREN IDEIA NAGUSIAK

1- Burlatako aniztasuna aintzat hartuta, **gure herria aniztasuna ere oinarri harturik eraikitzea** izanen da gure lehen helburua, herritar guztien artean, inolako salbuespenik gabe, bai eta aniztasuna osatzen dugun errealitate guztion artean ere, gure kultur jatorria edozein izanik ere. Horretarako, Kultur Aniztasun eta Migrazioarako Alorrean jarduketa-paradigma berria proposatu dugu arlo honetan, hots, **ikuspegi berri bat, immigrazioaren inguruko sektore-politikak bazterrean uzteko eta aniztasunaren inguruko politika barne-hartzaileei ekiteko.** Horretarako, funtsezkoa zaigu elkarbizitzaren inguruan izaniko diskurtsoak gainditzea; izan ere, diskurtso horiek kultur aniztasuna zuten oinarri, eta itxuraz ezberdintasuna errespetatzen bazuten ere, praktikak segregazio eragileak dira. Halaber, kultur asimilazioan oinarrituriko diskurtsoak gainditu behar dira, bezberdintasuna baztertzea sustatzen baitute, berdintasuna bilatzea aitzaki. Elkarbizitza-ereduaren alde gaude gu, hots, kulturartekotasuna eta aniztasuna aintzat hartzea oinarri dituen ereduaren alde, elkarbizitza bermatuko duelakoan.

Horrexegatik, **Kultur Aniztasun eta Migrazio Alorra** sortzea izanen da arlo honetan eginen dugun lehen gauzetako bat. Arlo horretako teknikari bat arituko da, eta alorrak berezko aurrekontua izanen du.

2- Ulertzen dugu Burlatan bizi den herritar oro eskubide osoen jabea dela, non jaio den eta zer administrazio-egoeratan dagoen alde

batera utzita. Horrenbestez, **den-denok ditugu eskubide, betebeharrak eta aukera-berdintasun berdinak**. Horrexegatik, Udal honek bermatuko du pertsona guztiek udalaren zerbitzu publikoen arreta jaso ahal izatea.

3- Gure aniztasuna kudeatzean, **gakoa elkarbizitzan datza**. Elkarbizitza lortuko bada, ezinbestekoak dira **elkarrekiko ezagutza, aitortza eta elkar aditzea**. Espero dugun emaitza baita **Burlata kohesionatua lortzea, bere errealitate anitza errespetatuko duena**: lehenik eta behin, elkar ezagutzea, eta gero, bestelako jendea aitortzea, eta guztion arteko errespetuan oinarriturik elkarbizitzea. Horretarako, elkar ezagutzeko eta elkar aditzeko dinamikak eta jarduketak behar ditugu, **parte-hartzean oinarrituriko dinamika komunitarioak**, eta haien bidez, Burlatako herritarrok oro lotzea, betiere oinarri harturik aniztasuna osatzen dugun jende eta errealitate guztien arteko lankidetzara.

4- Kultur aniztasun Alorraren programak **herritarren parte-hartzea** izanen du funts, gure aniztasuna osatzen duten errealitate guztiak ardatz hartuta. Era berean, programan parte hartu nahi duten gure herriko talde guztiekiko **lan komunitarioan** oinarrituko da, eta halaber, parte hartzea eskatzen duten herritarrekin jardungo dugu. Horrexegatik, hona hemen zer erakundetan egituraturiko diren kultur aniztasuneko politikak: **HIRITAR POLITIKETAN ETA KOMUNITARIOETAN PARTE-HARTZE KONTSEILU SEKTORIALAREN KULTUR ANIZTASUNAREN ETA MIGRAZIOAREN ATALA**. Zehazki, herritarrek parte hartzeko udal egituraren txertatua egonen da.

5- Hizkuntza funtsezko kontua da jende guztiaren gizarteratzea sustatzeko. Burlatan, **gaztelaniak** nahiz **euskarak** funtsezko eginkizuna betetzen dute gizarteratzea sustatzeko. Era berean, Burlatako hizkuntza aniztasun guztia hartu behar da kontuan. Ezin dugu aipatu gabe utzi euskararen egoera gutxiagotua, desabantailan baitago. Udal honek, beraz, neurriak hartuko ditu, herritar guztien aukera-berdintasuna sustatze aldera, euskaraz mintzatzen jakiteko eta ikasteko. Horrekin batera, beharrezkoa da **jatorri guztietako hizkuntzek eta kulturek** beren heinean presentzia eta aitortza izatea bizitza publikoaren edo gizarteraren arlo guztietan.

6- Kultur aniztasuna ikuspuntu **integraletik** ulertzen dugu, hau da, Burlatako herritar guztiak hartu behar dira aintzat, eta jatorri nahiz kultur aniztasunari loturiko errealitate guztiak (hau da, jende migratzailea, euskal-nafar jatorriko jendea, bestelako jatorria duen jendea, Ijito Herria), betiere talde eta komunitate bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta. Integraltasun hori hartuko dugu aintzat aniztasuna kudeatzeko politikak aplikatzean, elkarbizitza gure kultur aniztasuna osatzen duten errealitate guztiei baitagokie.

7- Zeharkakotasuna programa honen norabidea gidatuko duen funtsezko beste ardatzetako bat izanen da. Ezinbestekoa da hura aplikatzea, Udaleko gainerako alorrek (kultura, kirola, jaiak, hezkuntza, gazteria, euskara, berdintasuna, merkataritza,...) bultzatu eta abian jartzen dituzten politikek eta jarduketek aniztasunaren ikuspegia berma dezaten, eta era berean, herritar guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna berma dezaten, jendearen jatorria edo sorlekua alde batera utzita.

8- Beharrezkoa da, gainera, **genero-ikuspegia** ere txertatzea, emakumeek pairatzen dituzten bazterkeria ugariak kontuan hartzeko; bazterkeria, hainbat jatorritako emakumeak diren heinean, eta bazterkeria ere, baldintza-desberdintasunean diharduten emakume langileak diren heinean.

9- "Aniztasuna eta elkarbizitza Burlatan": Kultur aniztasuna eta elkarbizitzaren aldeko udal plana.

Herritarren parte-hartzea abiaburu harturik, plana Burlatan bizi den jendearen **eskubide** sozial, zibil eta politikoak **bermatzeaz** arduratuko da. Helburu ere izanen du **elkarbizitzaren eta aniztasunaren aldeko politikak garatzea**, eta era berean, **jarrera xenofobo, segregatzaile eta arrazistei aurre egitea**. Eredu demokratikoa eta barne-hartzailea, elkarrizketan eta desberdintasunarekiko errespetuan oinarritua egon behar dena, baina kontuan harturik beti zerk batu behar gaituen: hots, Burlatako herritar gisa, eskubide, betebeharrak eta aukeretan berdinak izateak. Horregatik, lan egin behar da, gure herrian partaide izatearen sentimendua guztion artean eraikitzeko eta sendotzeko. Izan eta senti gaitezten denok Burlatako kide; horixe izanen da gure funtsezko helburua.

Burlatan dugun kultur aniztasunak aukerak eta konplexutasunak ekartzen dizkigu, eta horiek oro landu behar dituzte hala herritarrek berek nola toki administrazioak. Aniztasuna aberasgarria da guretzat, eta herritar guztiak lotu behar zaizkio huraxe kudeatzeari. Horregatik, eta xede hartuta eskubide-, betebeharrak eta aukera-berdintasuna herritar guztiei bermatzea, eta xede hartuta, halaber, gizarte kohesionatuko nahiz ezberdintasunerako eskubidea errespetatuko duen Burlata bilatzea, bi jarduketak-esparru proposatu ditugu:

9. 1- Harrera esparrua: "Burlata acogedora/Burlata eroso":

Hiri erosoak behar adina tresna jarri behar ditu iritsi berrien eskura, hemen geldi daitezten, Burlatako edozein herritarren eskubide eta betebeharrak guztiak eskura ditzaten. Auzokideen arteko elkartasuna

oinarri harturik, gainera, herriko talde guztien eta, oro har, herritarren inplikazioa lortzen saiatuko da, harrera prozesuak errazte aldera. Ez dira berariazko zerbitzuak sortuko, baizik eta pertsona guztiek arreta berdina jasoko dute Burlatako zerbitzu publiko guztietan.

- Harrera: pertsona migratzaile iritsi berriengana bideratua, Burlatako Udalaren zerbitzu publikoak ezagut ditzaten.

- Elkarbizitza: Burlatako auzokide guztien arteko elkarbizitza erraztu eta ahalbidetzeko, inklusioa eta elkartzasuna oinarri harturik. Elkarbizitza sustatze aldera, topalekuak sortzea bultzatuko da, gure herrian dagoen kultur aniztasuna bere osoan ezagutzeko. Herriko talde guztiekiko lan komunitarioan oinarrituko da.

- Sentsibilizazioa eta salaketa: sentsibilizazioa, herritarrek aniztasuna aberasgarritzat jo dezaten. Horixe ere izanen dugu helburu, eta horretarako, eta xede hori gogoan, denetariko jarduerak diseinatuko dira. Era berean, jarduketa arrazista eta xenofobo mota oro salatuko dira Burlatan, bai eta horrelako portaerak eragiten dituzten politikak ere. Halaber, informazio-kanpainak abiaraziko dira, zurrumurru, gezur eta estereotipo arrazista eta xenofoboen aurka.

9. 2- Aniztasunaren eta parte-hartzearen esparrua: "*Ciudad para la convivencia: todos y todas somos Burlata / Elkarbizitzarako hiria: denok Burlata gara*".

- Ikuspuntu instituzionaletik, funtsezkoa da kultur aniztasuna era **horizontalean** edo **zeharkakoan** garatzea, antzera egiten baita beste balio batzuekin: euskara, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, edo parte-hartze soziala. Beraz, Burlatako aniztasunak agerian egon behar du Udalak garatzen dituen politika orotan.

- Eta esparru instituzionaletik garatzeaz gain, **lan komunitarioa eta herritarren parte-hartzea** bultzatuko ditu egiazko **elkarbizitza-eredu bat garatzeko, elkarrekiko ezagutzan eta aitortzan oinarritua**. Maila komunitarioan, auzokide-sareak garatuko dira, bitartekariekin, eragileekin eta gizarte talde protagonistekin batera, kulturen arteko elkarbizitza, kultur aniztasuna eta auzokideen arteko elkarbizitza sustatzeko. Aniztasuneko esparru egonkorrak bilatuko dira herriko pertsona interesatuen eta eragileen artean. **Egungo Burlata anitz eta askotarikoan partaide izatearen sentimenduaren** eraikuntza komuna sendotuko da.

- **Herritarren parte-hartzea**: HIRITAR POLITIKETAN ETA KOMUNITARIOETAN PARTE-HARTZE KONTSEILU SEKTORIALAREN KULTUR ANIZTASUNAREN ETA MIGRAZIOAREN ATALA izeneko erakundea sortuko

da. **Lankidetzarako eta koordinaziorako esparru misto** bat izanen da, Burlatako gizarte-eragileen, auzo-eragileen eta eragile instituzionalen artean. Erabakiak hartzea izanen du xede, aniztasun eta migrazio alorraren politikei dagokienez, eta era berean, lankidetzarako, elkarlanerako eta elkarrekiko laguntza, babes eta aholkularitzarako. Burlatako Udaleko aniztasunaren zeharkako tratamenduaren arduradun teknikaria izanen da koordinatzailea.

- **Gaztelania eta euskara herritar guztiengana hurbiltzea** proposatuko du, elkarbizitzarako komunikazio lanabesak eta kohesio soziala eragiteko tresnak diren heinean, eta aukera-berdintasuna sustatuko da, biak ala biak ezagut daitezzen. Gainera, Burlatan ditugun beste jatorri batzuetako hizkuntza-errealitateen aitortza proportzionala sustatuko da.

- **Hezkuntza formala eta ez formala** funtsezkoak dira, aniztasunarekin bat datorren kulturen arteko eredu bat Burlatan bermatzeko. Horretarako, baliabideak jarduera integratzaile eta komunitarioetan inbertitu behar dira (kirola, ludotekak, kultura, kanpamentuak, gazteleku,...), beste jatorri batzuetatik datozen haurrak egokiro hartzeko eta gizarteratzeko. Era berean, aniztasuna errespetatzeko balioak sustatu behar dira, elkar ezagutzaren eta elkarrizketaren bidez, denon arteko alderdi partekatuak nabarmenduta.

- **Lankidetzara eta elkartasun arloko programak** egokitzea, kontuan ere hartzeko Burlatan bizi diren jatorri honetako eta hartako herri eta herrialdeekiko elkarlana. Eta kontuan hartuko dira, halaber, hala jatorri jakin batzuetako presentzia kuantitatiboa nola jatorri batzuek herri gutxiagotu gisa edo estaturik gabeko nazio gisa izan dezaketenen izaera.

Burlatan, 2016ko martxoaren 10ean